

BALOREZKO PROPOSAMENA

Aristotelesek dioenez, gizakia gizarteko animalia denez, komunitate osasuntsu eta konektatu bat egon daiten ezinbestekoa da, non pertsonen arteko **elkartasuna** eta **elkarrekiko laguntza** nagusi diren. Zoritxarrez, hori ez da errealitatean gertatzen dena; hori dela eta, gure helburua arazo horiek konpontzea eta aldatzea izango da. Zehazki, ondorengo arazoak pairatzen ditugula uste dugu: **bakardadea**, **pantailaren mendekotasuna**, familiarekin dugun **kalitatezko denbora urria**, **janaria prestatzeko zailtasunak**, **ariketa fisiko murriztua** eta garatu gabeko garapen pertsonala.



Inguruko pertsonen laguntza **eskuragarria** eskaintzen diegu, batez ere, gizartean egunerokoan sortzen diren hainbat gatazka identifikatu ditugulako. Horregatik, sortuko dugun Arostol aplikazioak, aurrez aurreko harremanak sustatzeko tresna eta baliabideak eskaintzen ditu, erabiltzaileek elkarren artean komunikatzeko eta elkarri laguntzeko aukerak bultzatuz. Era horretan, gizarte sendo eta integratzaileago baten oinarriak jartzen ditugu,

non pertsonak **konfiantza** eta **babesa** aurkituko duten, benetako loturak sortzeko eta komunitate egoki bat eratzeko aukera eskainiz.

Alde batetik, gure gizartean, **eguneroko menuak** prestatzeko zailtasunak dituzten pertsonak daude; egoera berezian dauden pertsonak (adindunak eta bakarrik bizi direnak), aniztasun funtzionaleko pertsonak, alargunak, seme-alabedun guraso ezkongabeak, esaterako. Gaur egun [Espainiako biztanleriaren % 46](https://okdiario.com/salud/solo-40-espanoles-cocina-todos-dias-11065436) [soilik](#) [sukaldatzen](#) [du](#) [egunero](#)



(<https://okdiario.com/salud/solo-40-espanoles-cocina-todos-dias-11065436>), hori dela eta, elikadura osasuntsu bat izan dezaten, zerbitzua biztanleriarentzako **eskuragarri** egongo da. Hilabetero menu **pertsonalizatuak** ezartzeko eta janaria eskatzeko aukera izango dute, dieta **osasuntsu** eta **orekatu** bat edukiz. Nor ez da etxera goizeko ordu txikietan heldu eta afaria prestatzeko gogorik edota osagairik ez izan?

Beste alde batetik, [gaur egun 270.558 pertsona bizi dira bakarrik](https://www.eustat.eus/panoramaestadisticodelaspersonasmayores/2022/dependencia.html#:~:text=Un%20total%20de%20270.558%20personas,ten%C3%ADa%2065%20y%20m%C3%A1s%20a%C3%B1os.) (<https://www.eustat.eus/panoramaestadisticodelaspersonasmayores/2022/dependencia.html#:~:text=Un%20total%20de%20270.558%20personas,ten%C3%ADa%2065%20y%20m%C3%A1s%20a%C3%B1os.>) , eta horrek **bakardade** sentrazioa areagotzen du. Egoera horri aurre egiteko eta pertsonen arteko **harremanak** sustatzeko, elkarbizitza eta elkartasuna indartzen duten jarduerak antolatzen ditugu. Ekintzak, tailerrak eta irteerak eskaintzen ditugu, non erabiltzaileek elkarrekin parte hartzeko eta esperientziak partekatzeko aukera duten. Horrela, komunitate solidario bat eraikitzen dugu, parte-hartzaileen arteko lotura sendoagoak sortuz eta bakardadea murriztuz. Jarduera hauek aukera ematen diete

pertsoneri **ezagutza berriak** egitea eta benetako **harreman sare** bat sortzea, non elkarren laguntza eta babesa aurki ditzaketen.

Horretaz gain, gaur egungo gizartean **teknologiarekiko menpekotasuna** handia da, eta [Espainiako biztanleriak bere eguneroko % 35 mugikor zein ordenagailuari begira pasatzen dute](https://www.europapress.es/portaltic/gadgets/noticia-espanoles-emplean-35-tiempo-dia-rio-usando-pantallas-moviles-ordenadores-20230419143303.html#:~:text=Los%20usuarios%20espa%C3%B1oles%20emplean%20el,6%20horas%20y%2037%20minutos)(<https://www.europapress.es/portaltic/gadgets/noticia-espanoles-emplean-35-tiempo-dia-rio-usando-pantallas-moviles-ordenadores-20230419143303.html#:~:text=Los%20usuarios%20espa%C3%B1oles%20emplean%20el,6%20horas%20y%2037%20minutos>). Horrek



pertsonen arteko **harremanak kaltetzen** ditu, eta batzuetan, isolamendua eta komunikazio falta eragiten ditu. Horri aurre egiteko eta gure harremanak sendotzeko, **teknologiaren erabilera mugatzeko** hainbat ekintza proposatzen ditugu. Ekintza horien bidez, elkarrekin denbora gehiago pasatzen saiatzen gara, aurrez aurreko elkarriketak sustatuz eta elkar entzunez. Honela, teknologiaren eragin kaltegarriak arindu eta benetako harremanak indartzen ditugu, bizitza sozial osasuntsuago eta aberasgarriagoa lortuz.



Gure aplikazioa erabiltzaile bakoitzaren behar eta gustuen arabera **pertsonalizatuta** dago. Adin, interes eta bizimodu ezberdinetako pertsoneri egokitutako ekintzak eta irteerak proposatzen ditu, hau da, bakoitzaren **esperientzia** ahalik eta **hoberena** izateko. Horrez gain, aplikazioa **erabiltzaile guztientzat diseinatuta** dago, irudi intuitibo eta **erabilera erraza** izanda. Horrela, teknologia ezagutzen ez dutenek ere erraz erabil dezakete.

Bestalde, **kirolarekiko pasioa** duten pertsoneri zuzendutako ekintzak eskaintzen ditugu. Kirolen bidez **osasuna sustatzen** da, eta hurrek kirola praktikatzeko aritu ahal izango dira, aldi berean, gurasoek denbora libre gehiago izanez. [Espainiako ume eta nerabeen %70ak ez du gomendatutako kirol kopuru gutxiengoa egiten](https://efe.com/salud/2023-10-03/ninos-adolescentes-ejercicio-deporte/) (<https://efe.com/salud/2023-10-03/ninos-adolescentes-ejercicio-deporte/>); horregaitik, gure aplikazioan adin guztientzako kirol ekintzak eskaintzen ditugu.



Gainera, gurasoek haien seme-alabak ekintzetara eraman ditzateke, etengabe **irtenbideak** eskainiz, familia osorentzako **aisialdirako** eta **elikadurako** irtenbideak eskuratzeko. [Gaur egun, 487.700 pertsonak haien lana utzi dute seme-alabak zaindu ahal izateko](#)

https://www.eldiario.es/economia/mujeres-hombres-trabajar-familiares-dependientes_1_1521729.htm. Ekintza hauei esker, gurasoek euren lan-bizitzan zailtasunak dituztenean, laguntza, denbora gehiago eta elikadura planifikazioa izango dute.

Azkenik, tailerrak eta ikastaroak eskainiz, erabiltzaileek ikasteko eta garatzeko aukera izango dute. Sukaldaritza, eskulanak, kirola edo bestelako ekintza praktikoak proposatuz, garapen pertsonala sustatzen da. Garapen pertsonala pertsona batek bere bizitzaren garapen positiboa, bere buruarekiko duen jarrerari eta besteekiko harremana da. Garapen pertsonala gure bizitzako zati ezinbestekoa izanik, beharrezkoa ikusten dugu gure ekintzetan hazkunde pertsonala sendotzen laguntzea.



Gure irtenbideek **prezio lehiakorrak** eskaintzea dute helburu, erabiltzaileei ekintzetan parte hartzeko eta janari osasuntsuak eta **eskuragarriak** izateko aukera emanez. Etxean jateko zailtasunak dituzten pertsonei zuzenduta, janari eskaera zerbitzu praktiko eta irisgarria garatu dugu, beren beharretara egokituta. Horrela, gizarte-sektore zaurgarriek ere elikadura osasuntsu eta kalitatezko bat izateko aukera izango dute, horrek

dakarren erosotasunarekin. Zerbitzu honekin, janaria prestatzeko arazoak dituzten pertsonentzako sostengu izateaz gain, elikadura ohitura hobeak sustatzen ditugu, denentzat eguneroko bizitza errazago eta atseginago bihurtuz.

Gure aplikazioaren balorezko proposamenak **komunitatearen osasuna, harremanak eta garapen pertsonala sustatzea** du helburu. Pertsonen arteko konekzioak indartuz, teknologia positiboki erabiltzen laguntzen dugu eta pantailarik gabeko esperientziak eskainiz. Horrela, ez dugu bakardadea murrizten bakarrik, baizik eta familiak eta lagunak elkarrekin lotzen dituen espazio bat sortzen dugu, osasunaren, ikaskuntzaren eta plazeraren sinergia bat sortuz.

